

# KONTZERTUA & PROIEKZIOA. IKUS-ENTZUNEZKO GOZAMENA

CONCIERTO & PROYECCIÓN.  
PLACER AUDIOVISUAL


EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA  
ORQUESTA SINFÓNICA DE EUSKADI

iraila /septiembre

**23**

**12:00**

**Belodromoan**  
Velódromo



**DOAKO SARREREN BILKETA** iraila / septiembre  
**RETIRADA DE ENTRADAS GRATUITAS** **16 | 22**

**ZINEMALDIA / FESTIVAL DE CINE**  
**Kursaal + Okendo plaza**  
09:00 - 20:00

**DONOSTIA TURISMOA (Boulevard, 8)**  
09:00 - 20:00  
Igandean / domingo: 10:00 - 19:00

Kontzertu egunean sarrerarik balego, belodromoan jaso ahalko dira. / En caso de disponibilidad, se podrán retirar entradas el mismo día del concierto en el velódromo



EUSKADIKO  
ORKESTRA

20 urte  
fundacion **sgae** fundazioa



DONOSTIA ZINEMALDIA  
FESTIVAL DE SAN SEBASTIAN  
INTERNATIONAL FILM FESTIVAL

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa - Orquesta Sinfónica de Euskadi  
Tel: 943 013 232 • Fax 943 30 83 24

melosegui@euskadikoorkestra.eus / ilarranaga@euskadikoorkestra.eus / www.euskadikoorkestra.eus

**“IKUS-ENTZUNEZKO GOZAMENA” BELODROMOAN:**  
ZINEMA-MUSIKA EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOAREN,  
SGAE FUNDAZIOAREN ETA ZINEMALDIAREN ESKUTIK  
Filmetako soinu-banden kontzertua eta eszenen proiektzioa

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak, SGAE Fundazioak eta Zinemaldiak aurkezten dute Euskadiko Orkestrak Zinemaldiaren baitan emango duen kontzertua. Aurtengoan ere, Zinemaldiko lehenengo larunbatean, eguerdi-partean, Belodromoa irekiko zaie melomano, zinemazale eta askotariko ikus-entzuleei, soinu-banden interpretazio sinfonikoa eta horiei dagozkien filmeetako eszena-muntaia uztartzen dituen ikuskizunaz gozatzeko. Ordu eta erdiko “ikus-entzunezko gozamena” izango da, irailaren 23 larunbatean, eguerdiko 12etan. Sarrera doakoa da.

**Kontzertuak** honako film hauetarako sortutako musikaren egokitzapenak bilduko ditu: *El laberinto del fauno* (Guillermo del Toroena), *Bienvenido Mr. Marshall* (Luis García Berlangarena), *O Apóstolo* (Fernando Cortizorena), *Nur eta herensugearen tenplua* (duela gutxi zendutako Juanba Berasategirena, hari omenaldi gisa) eta *Los Borgia* (Antonio Hernándezena). Partitura horien egile dira Javier Navarrete, Jesús García Leoz, Xavi Font, Joserra Senperena eta Angel Illaramendi; horietako batzuk kontzertura bertaratu eta eszenatokira igoko dira euren lana aurkezteko. **José Miguel Pérez-Sierraren** zuzendaritzapean, **Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin** batera ariko dira **Nora Goyalde** (mezzoa) eta **Sergio Falque** (baxua) bakarlariak, eta **Donostiako Orfeoia**. Aldi berean 400m2ko pantailan proiektatuko den irudi-muntaia ikuskizun honetarako espreski sortu du Morgan Crea-k.

**Euskadiko Orkestra Sinfonikoa Zinemaldian.** SGAE Fundazioarekin eta Zinemaldiarekin elkarlanean ekimen hau sustatzeaz gain, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren lana Sail Ofizialera ere zabaldu da azken urteotan. Betiere **Fernando Velázquez**en eskutik, Orkestrak grabatu zuen **J.A. Bayonak** zuzendutako **“A Monster Calls”** (Munstro bat dator ni ikustera) luzemetraiaren musika; 2016an Europa mailan Zinemaldian estreinatu zen pelikula horri esker Jatorrizko Musika Onenari Goya saria eskuratu zuen. Eta joan den martxoan getxotar musikagileak **“Submergence”** (Murgilketa) filmarako sortutako musika grabatu zuen; **Wim Wenders**en lan horrek irekiko du aurtengo Zinemaldia eta zuzendaria bera Miramonen izan zen grabaketa egin zenean. Horrez gainera, Orkestraren eta Fernando Velázquezen arteko lankidetzaz emankorra haratago doa Zinemaldian: 2012an J.A. Bayonaren **“Lo Imposible”** luzemetraiaren soinu-banda zuzenean estreinatu zuen, hura Sail Ofizialean aurkeztearekin batera. Emanaldi horrekin itzuli zen Orkestra Zinemaldiaren programazioa. Eta, orduetik, azken sei urteotan etengabe jardun du.

**José Miguel Pérez-Sierra orkestra-zuzendaria (Madril, 1981)** 2006an egin zen ezaguna nazioarte mailan, *Il viaggio a Reims* zuzendu eta Pesaroko (Italia) Rossini Opera Festival jaialdiko zuzendari gazteena bilakatu zenean. Bere ibilbidea abiada bizian garatu eta espainiar zuzendariak Espainia, Italia, Frantzia, Alemania, Portugal, Uruguay edo Txilen egin du lan, antzoki zein areto nagusienetan. Bere errepertorioak lan sinfoniko eta lirikoak biltzen ditu, barrokotik hasi eta musika garaikideraino zabaltzen dena. Sarritan zuzendu du Orkestra, Abonu Denboraldiko kontzertuetan, OLBEn, grabaketatan eta abarretan.

**Sarrera doakoa da eta beharrezkoa izango da aurrez gonbidapena jasotzea, irailaren 16tik 22ra,** Zinemaldiak Kursaal Elkargunean eta Okendo Plazan dituen informazio guneetan, 9:00etatik 20:00etara, eta baita Donostia Turismoa bulegoan, asteleheneetik larunbatera 9:00etatik 20:00etara eta igandean, aldiz, 10:00etatik 19:00etara.

**KONTZERTUA & PROIEKZIOA: IKUS-ENTZUNEZKO GOZAMENA**  
**Irailaren 23 larunbata, 12:00etan. Donostiako Belodromoan**

Javier Navarrete: *El laberinto del fauno* (Guillermo del Toro)

Jesús García Leoz / A.J. Nieto, B. Lauret: *Bienvenido Mr. Marshall* (Luis García Berlanga)

Xavi Font / A. Vaquero, A. Peña, J. Rodríguez, M. Mato: *O Apóstolo* (Fernando Cortizo)

Joserra Senperena: *Nur eta herensugearen tenplua* (Juanba Berasategi)

Angel Illaramendi: *Los Borgia* (Antonio Hernández)

José Miguel Pérez-Sierra, zuzendaria

Nora Goyalde, mezzosopranoa

Sergio Falque, baxua

Donostiako Orfeoia

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa

## Konpositoreak

---

**Javier Navarrete** (Teruel, 1956). Hogeitabat banda sonoroen egilea dugu. Emmy Sari bat irabazi zuen 2012an *Hemingway & Gellhorn* telefilmagatik baina, akaso, bere lanik garrantzitsuen *El laberinto del Fauno* (Guillermo del Toro, 2006) filmaren banda sonora izan da. Goya eta Oscar sarietan nominatua izan zen eta 2007an Banda Sonoro Onenaren Ariel Saria erdietsi zuen. Musika elektronikoarekin eman zituen estreinako urratsak eta zinemagintzari eutsi zion Agustí Villarongaren *Tras el cristal* filmarekin (1987). Hortik aurrera egindako beste lan azpimarragarri batzuk: *Yo, puta* (2004), *El punto sobre la i* (2003) eta nazioarteko zenbait ekoizpen, tartean, *Mirrors* (2008), *Cracks* (2009) edo *Byzantium* (2012).

**Jesús García Leoz** (Nafarroa, 1904 - Madril, 1953). Musika ikasketei Iruñean ekin zion eta 1921ean Argentinara jo zuen. Bertan piano titulazioa eskuratu zuen, Buenos Airesko Musika Eskolan, hain zuzen ere. Madrilerara itzuli zen 1925ean, Goi Mailako Erret Musika Eskolan ikasketak jarraituz. Abesbatza maixu gisa hezitua, hainbat antzoki eta kafe-gunetan arrakasta handia lortu zuen, zine-musikan ere aitorpena merezi duela. Lan ildo honetan burututako konposaketak, besteak beste: *Botón de ancla* (Ramón Torrado, 1948), *Un hombre va por el camino* (Manuel Mur Oti, 1949), *Balarrasa* (José Antonio Nieves Conde, 1951) eta *Bienvenido Mr. Marshall* (Luis García Berlanga, 1953).

**Xavi Font** (Lleida, 1972) zine, telebista eta publizitaterako musikagintzan aditua dugu. XXIV. Goya Sarietan nominatua izan zen *Aqallas* filmarekin (Samuel Martín Mateos eta Andrés Luque Pérez, 2009). 2013an Mestre Mateo Saria jaso zuen *O Apóstolo* filmaren musikagatik (Fernando Cortizo, 2012), Philip Glass laguntzaile. Zinemagintzan egindako lan azpimarragarrienak: *Tiempo sin aire* (Samuel Martín eta Andrés Luque), *Relatos* (Mario Iglesias), *El diario de Carlota* (José Manuel Carrasco) edo *Abrígate* (Ramón Costafreda).

**Joserra Senperena** pianojole eta musikagileak (Donostia, 1975), zine, antzerki, literatura edo eta pop-rock musika alorretan lan egin du, musikagintzan, esaterako, Mikel Erentxun, Amaia Montero edo Fito & Los Fitipaldis bezalako artisten eskutik. Hainbat banda sonoroen egilea da: *Nur eta herensugearen tenplua* (Juanba Berasategi, 2017); *Phantasma* (Koldo Almandoz, 2016), *Gure Sor Lekua* eta *Gure Sor Lekuaren bila* (Josu Martínez, 2014 eta 2015, hurrenez hurren); *Toda la vida del mundo* (Nuria Ruiz Cabestany, 2010); *Simplemente* (Jon Andueza, 2009), antzerkirako hamaika lan eta dozena bat laburmetraia egin dituela.

**Ángel Illarramendi** (Gipuzkoa, 1959). Hogeita hamar banda sonoro baino gehiagoren egilea dugu, izan ere, 1981ean hasi zen musikagintzan, antzerki eta zinemarako, armonia ikastaroak eskeintzen zituen batera. 1990an irakaskuntza alde batera utzi eta musikagintzari ekin zion buru belarri. Ugariak dira lagun izan dituen zine ekoizle eta zuzendariak, besteak beste, Elías Querejeta. 2005ean Goya nominazioa jaso zuen *Héctor* filmagatik (Gracia Querejeta), baina erabateko lanak burutu ditu geroztik: *Cuernos de espuma* (Manuel Toledano, 1996), *Cuando vuelvas a mi lado* (Gracia Querejeta, 1998) edo *Los Borgia* (Antonio Hernández, 2006). *Una historia reciente* delako suite konposaketa, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren aldetik interpretatua izan zen 2013ko *Kontzertua & Proiekzioa* edizioan, gainera.

## SGAE Fundazioa Donostiako Zinemaldian

Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin batera antolatutako emanaldia irailaren 23an izango da, alegia, 22tik 30era Donostiako 65. Zinemaldian SGAE Fundazioak abian jarritako egitarauaren baitan. Helburua Espainian eta Amerika latinoan egiten den zineari bultzada ematea da, zinemaldia beraren proiektzioa sustatzea eta Gipuzkoako hiriburuaren hitzordura joaterik ez duten ikusleei ekimena gerturatzea.

Bidea **Madrilgo Berlanga Aretoan** jorratuko da ere, **irailaren 5etik 10era** (Andrés Mellado kalea, 53. Sarrera: 3 euro). *Festival de San Sebastián* deritzon emanaldia proiektatuko da bertan, azken urteotan **Made in Spain** atalean parte hartu duten filmen selekzio bat eskeiniz. Aurten Donostiako Zinemaldian erakutsitako hainbat luzemetraien proiektzioa ematen dela boskarren urtea dugu.

2012az geroztik dihardu SGAE Fundazioak *Made in Spain* atal ez lehiakor honen antolakuntzan, urteko espainiar zinemagintzari leiho bat zabalduz, bertan estreinatuak izan diren edo ez diren ekoizpenekin, eta, guztira, Zinemaldiari esker nazioarteko islada zabala duten filmak azpimarratuz.

## “PLACER AUDIOVISUAL” EN EL VELÓDROMO: MÚSICA DE CINE DE LA MANO DE LA ORQUESTA SINFÓNICA DE EUSKADI, LA FUNDACIÓN SGAE Y EL FESTIVAL DE SAN SEBASTIÁN

Bandas sonoras en concierto y proyección de escenas de películas

La Orquesta Sinfónica de Euskadi, la Fundación SGAE y el Festival de San Sebastián presentan el concierto de música de cine que la Orquesta de Euskadi ofrece en el marco del Festival. También este año, el primer sábado del Festival el Velódromo se abre a mediodía a melómanos, cinéfilos y público en general en un espectáculo que aúna la interpretación sinfónica de bandas sonoras y un montaje de escenas de las películas a las que pertenecen. **Será hora y media de “placer audiovisual”, el sábado 23 de septiembre a las 12 del mediodía. La entrada es gratuita.**

El concierto reúne las adaptaciones de la música compuesta para las películas *El laberinto del fauno* (de Guillermo del Toro), *Bienvenido Mr. Marshall* (de Luis García Berlanga), *O Apóstolo* (de Fernando Cortizo), *Nur eta herensugearen tenplua* (del recientemente fallecido Juanba Berasategi, al que se rinde homenaje) y *Los Borgia* (de Antonio Hernández). Dichas partituras son obra de Javier Navarrete, Jesús García Leoz, Xavi Font, Joserra Senperena y Angel Illaramendi; algunos de los compositores asistirán al concierto y accederán al escenario para presentar su trabajo. Bajo la dirección de José Miguel Pérez-Sierra, acompañarán a la Orquesta Sinfónica de Euskadi las voces solistas de Nora Goyalde (mezzo) y Sergio Falque (bajo), y el Orfeón Donostiarra. El montaje de imágenes que simultáneamente se proyectará en la pantalla de 400 m2 ha sido creado específicamente para este concierto por Morgan Crea.

La Orquesta Sinfónica de Euskadi en el Festival de San Sebastián. Además de promover esta iniciativa junto a la Fundación SGAE y el Festival, la presencia de la Orquesta Sinfónica de Euskadi en este certamen a lo largo de los últimos años se extiende también a su Sección Oficial. Siempre de la mano de Fernando Velázquez, la Orquesta fue la encargada de grabar la banda sonora de “A Monster Calls” (Un monstruo viene a verme), dirigida por J.A. Bayona, que se estrenó a nivel europeo en la edición de 2016; gracias a esa partitura Velázquez obtuvo el Goya a la mejor música original. Y en marzo de este año grabó la música escrita por el compositor getxotarra para “Submergence” (Inmersión), largometraje de Wim Wenders que abrirá el Festival de este año. El propio Wenders asistió en Miramon a dicha grabación. La prolífica colaboración de la Orquesta y Fernando Velázquez incluyó en 2012 el estreno absoluto en directo de la banda sonora de “Lo imposible” (J.A. Bayona), coincidiendo con su presentación en la Sección Oficial del Festival. Aquel concierto marcó el regreso de la Orquesta a la programación del Festival de San Sebastián. Y son ya seis años de presencia ininterrumpida.

El director de orquesta José Miguel Pérez-Sierra (Madrid, 1981) saltó a la fama internacional después de convertirse en el director más joven en subir al podio del Rossini Opera Festival de Pésaro (Italia), cuando en 2006 dirigió *Il viaggio a Reims*. Fue el comienzo de una carrera vertiginosa que ha llevado al músico español a dirigir en algunos de los teatros y auditorios más importantes de España, Italia, Francia, Alemania, Portugal, Uruguay o Chile, abarcando un extenso repertorio lírico y sinfónico que va desde el Barroco a la música contemporánea. Ha dirigido a la Orquesta en numerosas ocasiones, incluyendo conciertos en su Temporada de Abono, en ABAO y grabaciones.

La entrada es gratuita y será preciso recoger la invitación correspondiente del 16 al 22 de septiembre en los puntos de información del Festival de San Sebastián en el Centro Kursaal y en Okendo Plaza, en horario de 9 a 20 horas, así como en la oficina de Donostia Turismo, de lunes a sábado de 9 a 20 horas y el domingo, de 10 a 19 horas.

### CONCIERTO & PROYECCIÓN: PLACER AUDIOVISUAL Sábado 23 de septiembre, 12:00 horas. Velódromo de San Sebastián

---

Javier Navarrete: *El laberinto del fauno* (Guillermo del Toro)  
Jesús García Leoz / A.J. Nieto, B. Lauret: *Bienvenido Mr. Marshall* (Luis García Berlanga)  
Xavi Font / A. Vaquero, A. Peña, J. Rodríguez, M. Mato: *O Apóstolo* (Fernando Cortizo)  
Joserra Senperena: *Nur eta herensugearen tenplua* (Juanba Berasategi)  
Angel Illaramendi: *Los Borgia* (Antonio Hernández)

José Miguel Pérez-Sierra, director  
Nora Goyalde, mezzosoprano  
Sergio Falque, bajo  
Orfeón Donostiarra  
Orquesta Sinfónica de Euskadi

## Los compositores

---

**Javier Navarrete** (Teruel, 1956) es autor de más de una veintena de bandas sonoras. Ganador de un Premio Emmy en 2012 por el telefilm *Hemingway & Gellhorn*, su trabajo más importante ha sido la banda sonora de *El laberinto del Fauno* (Guillermo del Toro, 2006), con la que consiguió la nominación a los Goya y a los Óscar y el Premio Ariel a la Mejor Banda Sonora en 2007. Inició su carrera en el ámbito de la música electrónica y su primera inmersión en el cine vino de la mano de Agustí Villaronga con *Tras el cristal* (1987). A partir de ahí destacan sus trabajos en *Yo, puta* (2004), *El punto sobre la i* (2003) y algunas producciones internacionales como *Mirrors* (2008), *Cracks* (2009) o *Byzantium* (2012).

**Jesús García Leoz** (Navarra, 1904 - Madrid, 1953). Inició sus estudios musicales en Pamplona y en 1921 emigró a Argentina, donde obtuvo el título de piano por el Conservatorio de Buenos Aires. En 1925 regresó a Madrid y estudió composición en el Real Conservatorio Superior de Música. Formado como maestro de coro y concertador en varios teatros y como intérprete en algunos cafés, obtuvo el éxito con su música para cine. *Botón de ancla* (Ramón Torrado, 1948), *Un hombre va por el camino* (Manuel Mur Oti, 1949), *Balarrasa* (José Antonio Nieves Conde, 1951) y *Bienvenido Mr. Marshall* (Luis García Berlanga, 1953) son algunas de las producciones audiovisuales que van asociadas a su música.

**Xavi Font** (Lleida, 1972) es especialista en la composición de música para cine, televisión y publicidad. Nominado a los XXIV Premios Goya por *Agallas* (Samuel Martín Mateos y Andrés Luque Pérez, 2009), recibió el Premio Mestre Mateo 2013 a la mejor música original por *O Apóstolo* (Fernando Cortizo, 2012), en la que colaboró con Philip Glass. Algunos de sus trabajos para cine más destacados son: *Tiempo sin aire* de Samuel Martín y Andrés Luque, *Relatos* de Mario Iglesias, *El diario de Carlota* de José Manuel Carrasco o *Abrigate* de Ramón Costafreda.

**Joserra Senperena** (Donostia, 1975) es pianista y compositor. Ha desempeñado su carrera como compositor en el cine, el teatro, la literatura y la música pop-rock. Bajo su nombre, ha editado ocho discos propios y ha tocado con artistas emblemáticos de la escena vasca como Mikel Erentxun, Amaia Montero o Fito & Los Fitipaldis. Además, es autor de bandas sonoras de los largometrajes *Nur eta herensugearen tenplua* (Juanba Berasategi, 2017); *Phantasma* (Koldo Almandoz, 2016), *Gure Sor Lekua* y *Gure Sor Lekuaren bila*, dirigidos por Josu Martínez en 2014 y 2015, respectivamente; *Toda la vida del mundo* (Nuria Ruiz Cabestany, 2010); *Simplemente* (Jon Andueza, 2009), diversas obras de teatro y una docena de cortometrajes, entre otros.

**Ángel Illarramendi** (Gipuzkoa, 1959) cuenta con más de una treintena de bandas sonoras a sus espaldas. En 1981 comienza a escribir la música de varias obras escénicas, así como sus primeras bandas sonoras y sus primeras obras concertísticas a la vez que imparte clases de armonía. Será en 1990 cuando abandone la docencia para dedicarse en exclusiva a la composición. En el cine, ha trabajado con distintos directores y productores, destacando su colaboración con el productor Elías Querejeta. Nominado al Goya en 2005 por *Héctor* (Gracia Querejeta), entre sus obras destacan: *Cuernos de espuma* (Manuel Toledano, 1996), *Cuando vuelvas a mi lado* (Gracia Querejeta, 1998) o *Los Borgia* (Antonio Hernández, 2006), entre otras. Además, su suite *Una historia reciente* fue interpretada por la Orquesta Sinfónica de Euskadi en la edición de 2013 de *Concierto & Proyección*.

## La Fundación SGAE en el Festival de San Sebastián

El concierto organizado junto con la Orquesta Sinfónica de Euskadi, que tendrá lugar el próximo 23 de septiembre, forma parte del conjunto de actividades programadas por la Fundación SGAE en la 65 edición del Festival de San Sebastián, que se celebra del 22 al 30 de septiembre. El objetivo de la entidad es promocionar el cine español y latinoamericano, ampliar la proyección del festival y acercar la iniciativa a los espectadores que no puedan acudir a la cita en la capital guipuzcoana.

De esta manera, **del 5 al 10 de septiembre**, la **Sala Berlanga** de Madrid (C/Andrés Mellado, 53. Precio: 3 euros) proyectará el ciclo *Festival de San Sebastián*, que ofrecerá una selección de películas que han participado en la sección ***Made in Spain*** en los últimos años. Este es el quinto año consecutivo que la entidad celebra un ciclo de cine con algunos de los títulos exhibidos en el Festival.

La Fundación SGAE coorganiza desde 2012 la sección no competitiva *Made in Spain* que integra una selección de películas, muestra del panorama del cine español del año, con producciones estrenadas o no en nuestro país, a las que el Festival ofrece una excelente plataforma para su difusión internacional.